

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TURISMO-PRODUKTUEN ETA -ZERBITZUEN SUSTAPENA ETA MERKATURATZEA	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF0084		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Turismoa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Tokiko turismoa sustatzea eta bisitaria informatzea	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Tokiko turismo-produktuak eta -zerbitzuak	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Tokiko turismo-produktuen eta -zerbitzuen diseinua	Iraupena	90

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC01075\_3: TOKIKO TURISMO-ZERBITZUAK ETA -PRODUKTUAK SORTZEA, SUSTATZEA ETA KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Inguruneko turismo-baliabideen eta -zerbitzuen ezaugarriekin bat datozen tokiko turismo-produktuak, -zerbitzuak eta -helmugak merkaturatzeko estrategiak abian jartzea eta ebaluatzea.

E1.1 Turismoaren merkaturatzeko estrategiak eta banaketa-bideak deskribatzea eta aztertzea.

E1.2 Komunikazio-estrategiak eta haien garapen-fase bakoitzean lor daitezkeen helburuak deskribatzea eta baloratzea.

E1.3 Komunikazio-estrategiak tokiko turismo-produktuen, -zerbitzuen eta -helmugaren berezitasunekin lotzea.

E1.4 Tokiko turismo-produktuak, -zerbitzuak eta -helmugak merkaturatzeko erabiltzen diren komunikazio-bide eta -tresnen erabilera justifikatzea, eta haien egokitasuna baloratzea, tokiko turismo-helmugaren, -zerbitzuaren edo -produktuaren arabera, komunikazio-helburuen arabera, helburu den publikoaren arabera eta eskura dauden giza baliabideen eta baliabide ekonomikoaren arabera.

E1.5 Tokiko inguruneko turismo-produktuak merkaturatzeko proiektuak prestatzea, haiei buruzko informazioa eta merkatuaren ezagutza abiapuntutzat hartuta; Honako alderdi hauek barnean hartu beharko dituzte:

- Banaketarako estrategiak eta bideak.
- Produktuetara egokitutako komunikazio-ekintzak, esparru geografikoak eta helburuko publikoa.
- Ekintzak bideratzeko komunikazio-tresnak, eta tresna horietako bakoitza erabili aurreikusitako helburuen lorpen-mailaren zenbatespena.
- Definitutako ekintzen kostuen, irismenaren eta izan litzaketan emaitzen zenbatespena.
- Programatutako merkataritza-ekintzen eraginkortasun-maila ebaluatzeko aukera ematen duten tresnak eta aldagaiak, betiere helburu den publiko hartzailea eta aurreikusitako kostua kontuan izanik.

E1.6 Produktuak eta markak merkaturatzeko araudia identifikatzea eta interpretatzea.

A2: Zerbitzu-marketinaren aplikazioak aztertzea, baita aplikazio horiek tokiko turismo-produktuak sortzeko eta sustatzeko duten garrantzia ere.

E1.2.1 Produktuen marketina eta zerbitzuen marketina bereiztea.

E1.2.2 Turismo-produktu jakin baten sorreran, eskaintzan eta sustapenean eragina duten zerbitzuen mix-aren osagaiak identifikatzea.

E1.2.3 Zerbitzuen sorkuntzan fase hauek daudela justifikatzea: kontzeptualizazioa, egituratzea, merkaturatzea eta zerbitzua ematea.

E1.2.4 Tokiko turismo-produktuen sorreran eta sustapenean zerbitzugintza-sistemaren aplikazioak duen garrantzia baloratzea.

E1.2.5 Marketin mix-aren aldagai bakoitzak duen pisua eta tokiko produktuen garapenean duen garrantzia baloratzea, haien bizi-zikloa abiapuntu izanik.

##### Edukiak

###### 1. Turismo-marketina

- o Ostalaritzaren eta turismoaren sektorearen esparruan marketinaren beharra justifikatzea.
- o Eragiketa-marketina eta marketin mix-a ostalaritzaren eta turismoaren sektorean.
  - Marketin operazionala definitzea, eta oinarri dituen aldagaien ezaugarriak zehaztea: produktua/zerbitzua, prezioa, merkaturatzea, banaketa eta komunikazioa.
  - Aldagai horien berezitasunak tokiko turismo-produktuen diseinuan eta merkaturatzean.
  - Bizipen-, sentsazio- edo esperientzia-marketina.
  - Bizipen-marketina definitzea, eta laugarren osagaiaren ezaugarriak zehaztea: bidaiaren esperientzia, bizipena eta helmugarekiko harremana.

- o Merkatuak segmentatzeko eta helburuko publikoa definitzeko prozesua.
- o Komunikazio-tresnak, tokiko turismo-produktu motaren arabera: nortasun korporatiboa, marka, publizitatea, argitalpenak, harreman publikoak, turismo-azokak, turismo-produktuen eskaintzaren eta bidaia-antolatzaileen eta/edo komunikabideen arteko topaketa profesionalak, azken kontsumitzaileari zuzendutako ekitaldiak.
- o Sustapen-ekitaldien plangintza, antolamendua eta haien komunikazio-ekintzen kontrola.
- o Marketin-plana. Bideragarritasuna eta gauzatzeko-plana.
- o Produktuak eta markak merkaturatzeko araudi erregulatzaileria.

## 2. Tokiko turismo-produktuak eta -zerbitzuak merkaturatzeko proiektuak

- o Banaketarako estrategiak eta bideak.
- o Produktu eta zerbitzuetara egokitutako komunikazio-ekintzak, esparru geografikoak eta helburuko publikoa.
- o Ekintzak bideratzeko komunikazio-tresnak, eta tresna horietako bakoitza erabilia aurreikusitako helburuen lorpen-mailaren zenbatespena.
- o Definitutako ekintzen kostuen, irismenaren eta izan litzaketan emaitzen zenbatespena.
- o Programatutako merkataritza-ekintzen eraginkortasun-maila ebaluatzeko aukera ematen duten tresnak eta aldagaiak, betiere helburu den publiko hartzailea eta aurreikusitako kostua kontuan izanik.

## 3. Ostalaritzaren eta turismoaren sektoreko zerbukzio-sistema

- o Zerbukzioaren teoria baterako elementuak. Sistema horren erabileraren justifikazioa eta garrantzia.
- o Tokiko turismo-produktuak sortzeko eta garatzeko zerbukzio-sistemaren aplikazioaren berezitasunak.

## 4. Informazioaren teknologiak erabiltzea turismo-helmuga bat sustatzeko eta tokiko turismo-produktuak sortzeko eta sustatzeko

- o Turismo-webguneak eta -atariak. Tipologiak eta funtzionalitateak.
- o Webguneek sarean duten kokalekua. Bilatzaileak.
- o Turismoaren arloko marketina eta merkataritza elektronikoa.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

#### Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0083: Tokiko turismo-produktuen eta -zerbitzuen diseinua

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Tokiko turismoa sustatzea eta bisitaria informatzea